

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Basokada zenbaki

MUNDUAREN BI HEREN herren da, hirugarren herena baso dugu. Lurrez 40 milioi km² baso, 7.000 milioi eskas biztanleontzat, bakoitzarentzat 6.200 m² baso. Mundu guztiko baso hauen bostetik bat Errusian bizi da, bere lur guztien %47,9an, hau da, 809 milioi hektarea edo 2.427 milioi golde.

Euskal Herriaren azalera 20.950 km² da eta Europako Ingurumen Agentziaren arabera %35,44 dugu baso, 7.425 km² edo 2.227.500 golde. Hiru bat milioi biztanle garez bakoitzarentzat 2.500 m² genduke. Munduko batez bestekoaren bi t'erdialdiz baso gutxiago dugu euskaldunok.

Agentzia horren herrialdekako datuen haritik zero-errek egin kontuak: 3.317 km² eta 303.000 biztanleko Araban %38,53 da baso. 2.237 km² eta 1.140.000 biztanleko Bizkaian %42,74. 1.980 km² eta 690.000 biztanleko Gipuzkoan %49,25. 856 km² eta 228.000 biztanleko Lapurdin %26,82. 1.325 km² eta 29.000 biztanleko Nafarroa Beherean %24,53. 10.421 km² eta 600.000 biztanleko Nafarroa Garaian %32,06. 814 km² eta 15.500 biztanleko Zuberoan %39,54. Nongo euskaldunek dute baso puska handiena? Zuberotar bakoitzak 20.765 m² baso du, baxenabartarrak 11.207 m², goi-nafarrak 5.568 m², arabarrak 4.218 m², gipuzkoarrak 1.413 m², lapurtarrak 1.006 m² eta bizkaitarrak 838 m².

Baso gehien duten munduko hamar estatu nagusien artean 1.248 Euskal Herrikin adinako baso sailak dituzte. Gutxi gorabehera, Errusiak 385 Euskal Herri, Brasilek 228, Kanadak 148, AEBek 144, Txinak 94, Australiak 78, Kongok 64, Indonesiak 42, Peruk 33 eta Indiak 32.

OHARRAK:

Erabilitako datuak 2000 eta 2008 urte artekoak dira. Gure inguruotako golde lurra 3.333 m² da. Herrikako datuak edo beste batzuk eskuratu nahi dituenak txukun asko ditu www.atlas.net gunean.



JAVIER MENÉNDEZ-CC BY SA

8.000



HOSTING.PILSFREE.NET

Duela 8.000 urte 14.800 milioi hektarea baso omen zen munduan. Gaur egun 4.000 besterik ez. Hau da hau marka! Gure marka! Adituek diotenez 40 urte barru ez da baso tropikalik ia ezagutu ere egingo.



Landareei buruzko galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua landareak@argia.com helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.

Lore-lan
Lurez S. Coop.

Lorezaintza proiektuak
Mantentze-zerbitzua

Tel. 609 42 45 47 • Faxa: 943 79 49 12 • lorelan@euskalnet.net